

**Dantza ikuskizunen programazio transfrontalerako deialdia
Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Euskal Hirigune Elkargoan (Iparraldea) ezarritako
konpainia artistikoei zuzendua**

Zer da Dobra?

Dobra mugaz gaindiko lankidetzaproiektua da, Euskal Herriko hegoaldeko eta iparraldeko eta Nafarroako sektore koreografikoko eragileen sare-lotura hobetzea helburu duena, sektorearen eredu berri bat eta egituraketa iraunkorragoa definitzeko, balio-kate osoan parte hartzen duten eragile guztiak inplikatzuz.

Euskal Herriko 6 bazkide biltzen ditu: CCN Malandain Ballet Biarritz (proiektuaren burua), Euskal Hirigune Elkargoa, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Erreterriako Udala eta Dantzaz.

36 hilabetetan zehar 5 ekintzako ibilbide baten bidez, Doblak mugaz gaindiko sektore koreografikoa egituratzeko estrategia proposatzen du, erronka garrantzitsu, konplexu eta elkarren artean lotuei erantzuteko: finantza-autonomia, ekoizpenen hedapen zabala lurraldean eta nazioartean, sorkuntza baten balio-katearen deskarbonizazioa eta publikoekin harreman berriak.

Doblak sare profesional koreografiko baten garapena eta balorizazioa uztartzen ditu, baita prestakuntza, inkubazio, esperimentazio eta hibridazio programak eta sektoreko eragileentzako laguntza-ibilbide partekatu eta koordinatuak ere.

Halaber, ikerketa-ekintza logika bat hartzen du, bere etorkizuneko iraunkortasunari eskainitako ekintza espezifiko baten bidez. Bere gobernantza, iraunkortasun eta erreplikagarritasun moduak aztertuz, helburua kolektiboaren sendotasuna eta arintasuna indartzea da, trantsizioei aurre egiteko, haiei eusteko eta, batez ere, haietatik indartu eta eraldatuta ateratzeko, sektore egituratu eta erresiliente baten zerbitzura.

1.506.388,60 €-ko aurrekontua du, eta %65ean Europar Batasunak kofinantzatua dago, Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren bidez (POCTEFA 2021-2027). POCTEFaren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaz gaindiko eremuaren integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da.

Testuinguru honetan, Dobra proiektuak dantza ikuskizunen programazio transfrontalerako lehen deialdia abiarazten du.

Hautatutako ikuskizunak 2026ko iraila eta azaroa bitartean aurkeztuko dira Biarritzen eta Erreterrian egingo diren jaialdietan.

Helburuak

Deialdi honen helburua da, zerbitzu artistikoen kontratazioaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean ezarritako koreografoen sorkuntzen hedapena babestu eta hobetzea.

Doblak sustapen eta balorizazio estrategia bat ezarriko du hautatutako konpainientzat, proiektuaren lurraldeko eta haragoko programatzaileen aurrean. Halaber, prestakuntza saio laburrak eskainiko ditu artistei eta kolaboratzaileei, honako 5 ardatzen inguruan:

1. sorkuntza / hedapen / bitartekaritza proiektuen diseinua,
2. publiko berrietara hurbiltzea,
3. baliabide ekonomikoen dibertsifikazioa,
4. proiektu hibridoaren diseinua eta gauzatzea,
5. trantsizio ekologikoa.

Hautagarritasun irizpideak

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, konpainia artistikoei:

Proiektuaren lurraldean ezarrita egon behar dute: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa edo Euskal Hirigune Elkargoa.

- Dobra topaketa profesionaletan parte hartzeko konpromisoa hartu behar dute.
- Prestakuntza ibilbidea jarraitzeko konpromisoa hartu behar dute.
- Hautaketa irizpideak

Eskaerak Dobra proiektuaren bazkideen batzordeak ebaluatuko ditu, honako irizpide hauen arabera:

- Euskadi, Nafarroa eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko lurralde-oreka,
- Genero-berdintasunaren errespetua,
- Proiektu artistikoaren eta artisten erabilgarritasuna 2026ko iraila eta abendua bitartean,
- Proiektuaren lotura mugaz gaindiko sorkuntza dinamikekin,
- Bazkide diren lurraldeetako profesionalen presentzia talde artistikoan eta ekoizpenean,
- Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa.

Baztertzaileak ez diren irizpideak

Mutualizazio eta dauden gailuen indartze logika batean, bereziki baloratuko dira dagoeneko proiektuko bazkideekin lankidetzan abiatu duten konpainien hautagaitzak.

Egutegia

- 2026ko otsailaren 19a: deialdiaren argitalpena
- 2026ko martxoaren 9a: hautagaitzak aurkezteko azken eguna
- 2026ko martxoaren 13a: batzorde artistikoaren bilera
- 2026ko martxoaren 17a: hautatutako ikuskizunen iragarpena

Hautagaitza formularioa

[Dobra: Dantza ikuskizunen mugaz gaindiko hedapenerako proiektu deialdia – Inprimakia bete](#)

Harremanetarako

Malandain Ballet Biarritz
Carine Aguirregomezorta
c.aguirregomezorta@malandainballet.com
+33 (0)6 16 13 47 10